BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4570

AGINDUA, 2014ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza eta Kulturako sailburuarena, Euskadiko Arkeologi Ondarearen Aholku Batzordeko zenbait bokalen kargu-uztea formalizatzeko, bokal berriak izendatzeko eta Batzordearen osaera zehazteko dena.

Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 6. artikuluan xedatzen duenaren arabera, bertan arautzen diren arloei buruzko aholkua emateko behar diren organo aholku-emaileak sortu ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzak.

Ondorioz, martxoaren 26ko 62/1996 Dekretuaren bidez, Euskadiko Arkeologi Ondarearen Aholku Batzordea sortzea eta horren egitura eta funtzionamendua finkatzea erabaki zen. Aipatu Dekretuaren 2.c) artikuluaren arabera, hauek izango dira Batzordeko kideak: hiru Foru Aldundietako ordezkariak, bakoitzetik bat, eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak izendatutakoak, gutxienez hiru eta gehienez bost.

Eta Dekretuaren 3.2. artikuluarekin bat etorriz, batzorde horretako bokalen karguaren iraupena bi urtekoa izango da.

Bokalak azkenekoz izendatu zirenetik (Kultura sailburuaren 2012ko martxoaren 1eko Agindua), aurreko lerroaldean aipaturiko epea igaro denez, aurkeztu diren proposamenak ikusita eta martxoaren 26ko 62/1996 Dekretuko 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Arkeologi Ondarearen Aholku Batzordeko bokal hauen kargu-uztea formalizatzea, horretarako ezarritako epea iragan izanagatik:

– Félix López López de Ullibarri jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria,

– Iñaki García Camino jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria,

– Carlos Olaetxea Elosegi jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria,

– Javier Fernández Eraso jauna,

– José Luis Solaun Bustinza jauna,

– Armando Llanos Ortiz de Landaluze jauna,

– Beatriz Herreras Moratinos andrea, eta

– M.ª José Arostegi Irastorza andrea.

Bigarrena.– Euskadiko Arkeologi Ondarearen Aholku Batzordeko Bokal ondorengo pertsonak izendatzea:

– Félix López López de Ullibarri jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa eta hark proposatuta,

– Iñaki García Camino jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa eta hark proposatuta,

– Carlos Olaetxea Elosegi jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa eta hark proposatuta,

– Javier Fernández Eraso jauna,

– José Luis Solaun Bustinza jauna,

– Armando Llanos Ortiz de Landaluze jauna,

– Beatriz Herreras Moratinos andrea, eta

– M.ª José Arostegi Irastorza andrea, Idazkaritza lanak egingo dituena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Ondarearen zuzendaritzak proposatuak.

Hirugarrena.– Euskadiko Arkeologi Ondarearen Aholku Batzordea zortzi (8) bokalek osatuko dute, horietako bost (5) Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak izendatuko ditu.

Laugarrena.– Interesdun guztiei honen berri ematea eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzea, herritar orok ezagut dezan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kulturako sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 27a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.